

2.5. 30 eta 13,2 Kv-ko airetiko lineak.

Eroaleen eta lurraren arteko segurtasuneko gutxieneko tartea 6 metrokoa izango da. (Goi-tentsioko Lineen Erregelamendu Teknikoaren 25. artikulua).

Linea hauek lurrazpikoak izan daitezke hiritarturiko lursailen edo hiritartzeko bidean daudenen kasuan.

2.6. 13,2 Kv-ko eta behe-tentsioko lineak.

Kanalizatu egingo dira, 0,8 metroko sakoneraz goialdean neurturik, 10 cm-ko diametroko hoditan BT-aren kasuan, eta 20 cm-kotan GT-aren kasuan.

Hodi hauek hondarrezko ohe batean jarriko dira, eta hodia- ren gainean 20 cm-ko geruza bat osatuz estaliko dira gero. Erregistroak hormigoiz egingo dira galtzadan, eta adreiluz espaloietan eta ibilgailu arinak igarotzeko inguruetan.

2.7. Transformazio zentroak (TZ).

— Egoitza gunea: Zentro bat aurreikusiko da 225 abonatu eta 800 gelako.

— Industri gunea: Zentro bat hektareako.

— 50 Kv-tik gorako indarra behar duten eraikinetan.

3. Gasbidea eta gas banaketarako adarrak.

Aipatutako hodiekin hartzen duten eremuak eta ezarritako babes zonekin dagokien lege araudia bete beharko dute.

3.4 KAPITULUA. ESPAZIO LIBREEN SISTEMA OROKORRA

83. artikulua. *Espazio libreak.*

Espazio libreen sistema orokorra honako parke hauek osatuko dute:

— Hiri parkeak:

Eteo, Olapoto eta San Martin parkeak.

— Landa parkeak:

Berezaoko hariztia.

Usakoko parkea.

Plazetan, lorategietan eta parkeetan (hirikoetan zein landa-koetan), Plan batek beste eraikin edo instalaziorik baimentzen ez duen bitartean, bakar-bakarrik espazio horiei dagozkien hiri- altzariak erabili ahal izango dira (bankuak, farolak, iturri txikiak), komun publikoak eta, hala egokitzuz gero, kiosko-taberna izateko behin-behineko eraikinen bat, urtez urte berri- urteko behin-behineko erakinetan, urtez urte berri- urteko behin-behineko erakinetan, urtez urte berri- urteko behin-behineko erakinetan.

Aipatutako elementu horien kokapena, neurriak eta ezaugarriak Udalak zehaztuko ditu, udal zerbitzu teknikoek aurrez emandako txostenean oinarriturik.

LAUGARREN IDAZPURUA

LURZATI ERAIKIGARRIETAKO ERAIKUNTZA ETA LURRAREN ERABILERARI BURUZKO ORDENANTZAK

4.1 KAPITULUA. ERABILERA ERREGIMENA

84. artikulua. *Erabilera motak.*

Ordenantza hauen ondorioetarako eta, berauek garatuz, Alorreko Planetan eta Plan Berezetan sartzen diren ordenan- tzen ondorioetarako, honako erabilera hauek bereizten dira eraikinetan; edota, horiei atxikitako espazio libreetan, hala ego- kitzuz gero:

2.5. Líneas aéreas de 30 y 13,2 Kv.

La distancia mínima de seguridad de los conductores al terreno será de 6 mts. (Art. 25 del Reglamento Técnico de Líneas de A.T.).

Estas líneas podrán ser subterráneas en caso de terrenos urbanizados o en curso de urbanización.

2.6. Líneas de 13,2 y baja tensión.

Serán canalizadas, con una profundidad de 0,8 mts., en su parte superior, bajo tubería de centro de 10 cms. de diámetro para B.T. y 20 cms. para A.T.

Los tubos descansarán en cama de arena y se recubrirán de la misma hasta una altura de 20 cms. por encima del tubo. Los registros serán de hormigón en calzada y de ladrillo en aceras y zonas de tránsito de vehículos ligeros.

2.7. Centros de Transformación (CT).

— Zona residencial: Se preverá un centro por cada 225 abonados y 800 habitaciones.

— Zona industrial: Un centro por Hectárea.

— Edificios con demanda superior a 50 Kv.

3. Gaseoducto y sus ramales de distribución.

Tanto el área ocupada por las citadas conducciones como las zonas de protección establecidas quedan sometidas al régi- men legal correspondiente.

CAPITULO 3.4. SISTEMA GENERAL DE ESPACIOS LIBRES

Artículo 83. *Espacios Libres.*

El sistema general de espacios libres estará constituido por los siguientes parques:

— Parques urbanos:

Parque de Eteo, Olapoto y San Martín.

— Parques rurales.

Robledal de Berezao.

Parque de Usako.

En las plazas y en los jardines y parques (urbanos y rurales), en tanto que un Plan no autorice otras construcciones o instala- ciones, sólo se podrán emplazar los elementos de mobiliario propio de estos espacios (bancos, farolas, pequeñas fuentes), aseos públicos y, en su caso, alguna construcción provisional destinada a kiosko-bar, autorizada en régimen de concesión revocable cada año.

La ubicación, dimensiones y características de los elemen- tos enunciados serán determinadas por el Ayuntamiento previo informe de los servicios técnicos municipales.

TITULO CUARTO

ORDENANZAS DE EDIFICACION Y USO DEL SUELO PARA LAS PARCELAS EDIFICABLES

CAPITULO 4.1. REGIMEN DE LOS USOS

Artículo 84. *Clases de usos.*

A efectos de las presentes Ordenanzas y de las que, en desa- rrollo de las mismas, se incluyan en los Planes Parciales y en los Planes Especiales, se distinguen los siguientes usos de los edificios y, en su caso, de los espacios libres adscritos a los mismos:

1. Etxebizitza.
2. Egoitza komunitarioa.
3. Merkataritza.
4. Bulegoak.
5. Osasun arlokoak.
6. Kultur arlokoak.
7. Erljio arlokoak.
8. Aisialdikoak.
9. Kirol arlokoak.
10. Administrazioakoak eta jendearen zerbitzukoak.
11. Aparkamendua.
12. Industria.

85. artikulua. Etxebizitza.

Familiaren egoitzarako edo bizilekurako bideratutako eraikina edo eraikin zatia da etxebizitza. Erabilera honen barruan honakoak bereizten dira:

a) Familia bakarreko etxebizitza: Lurzati independente batean kokatua egoten da, eraikin bakareko tipologiakoa, edo erabilera bereko edo desberdineko beste batzuei horizontalean atxikia, sarbide eskusiboaz eta autonomoaz kaletik edo aldameneko espazio libretik.

b) Etxebizitza kolektiboa: Horizontalean edo bertikalean beste batzuekin elkartua dagoena, kaletik edo aldameneko espazio libretik etxebizitza bakoitzaren sarreraino sarbide komuneko eraikina osatzen duena.

86. artikulua. Egoitza kolektiboa.

Bizileku komunitarioa bideratutako eraikinetan, edo eraikin zatietan garatzen dena da; esate baterako, hotel, pentsio, zaharren egoitza, ikasleen egoitza eta antzekoak diren komentu, koartel eta abarretan, garatzen dena.

87. artikulua. Merkataritza.

1. Jendeari zabalduetako lokaletan zertutako handizkako edo txikizkako merkataritza jarduerak hartzen ditu: Merkataritza-biltegiak, kafetegi, pub, taberna eta jatetxeak, eta publikoari zerbitzu pribatuak -ileapaindegiak, apaindegiak, tindategi eta antzekoetarako arropa jasotzea- eskaintzeko jarduerak.

2. Beren ezaugarriak, materialak edo erabiltzen, manipulatzeko edo biltzen dituzten baliabideak direla eta, eragozpen handiak edo jendearen osasunarentzako zein gauzeterako arriskuak sortzen dituzten merkataritza erabilerak, industri erabilerari aplikatzen zaizkion arauak zertuko dira.

88. artikulua. Bulegoak.

Administrazio jarduerak hartzen ditu, banka, burtsa eta aseguruak, gestoriak, profesionalen bulego eta estudioak eta antzekoak alegia.

89. artikulua. Osasun arloko erabilera.

Gaixoak tratatzeko zein ostatu emateko erabilera da (erite-txeak, ospitaleak, klinikak, ambulatorioak, kontsultategiak eta antzekoak). Osasun erabileraren baitan geratzen dira, halaber, albatzaritza klinikak eta antzeko establezimenduak.

90. artikulua. Kultur arloko erabilera.

Hezkuntza erabilera eta irakaskuntza maila eta mota ororen erabilera hartzen ditu (haurtzaindegiak barne), museoak, bibliotekak, erakusketa-aretoak, hitzaldi-aretoak, musika kontserbatorioak, eta jakinduriaren arloko azterketa, sustapen eta hedapeneko zentroak.

1. Vivienda.
2. Residencia comunitaria.
3. Comercio.
4. Oficinas.
5. Sanitario.
6. Cultural.
7. Religioso.
8. Recreativo.
9. Deportivo.
10. Administrativo y de servicio público.
11. Aparcamiento.
12. Industrial.

Artículo 85. Uso de Vivienda.

La vivienda es el edificio o parte de un edificio destinado a residencia o alojamiento familiar. Dentro de este uso se distinguen entre:

a) Vivienda unifamiliar: Es la situada en parcela independiente, en tipología de edificio asilado, o adosado horizontalmente a otros del mismo o de distinto uso, con acceso exclusivo y autónomo desde la vía pública o espacio libre colindante.

b) Vivienda colectiva: Es la agrupada horizontal o verticalmente con otras, formando edificio con acceso común desde la vía pública o espacio libre colindante y hasta la entrada de cada vivienda.

Artículo 86. Uso de Residencia Colectiva.

Es el que se desarrolla en aquellos edificios o parte de los mismos, destinados a alojamientos comunitarios, tales como hoteles, pensiones, residencias de ancianos, de estudiantes y otros equiparables, como conventos, cuarteles, etc.

Artículo 87. Usos de Comercio.

1. Comprende la actividad de comercio al por mayor o al menor en locales abiertos al público, la de almacenes comerciales, la de cafeterías, pubs, bares y restaurantes, y la de prestación de servicios privados al público, tales como peluquerías, salones de belleza, recogida de prendas para tintorerías y similares.

2. Los usos comerciales que por sus características, materiales o medios utilizados o manipulados o almacenados, originen molestias importantes o generen riesgos para la salubridad de las personas o de las cosas se regirán por las normas aplicables al uso industrial.

Artículo 88. Uso de Oficinas.

Comprende las actividades administrativas, incluidas las de banca, bolsa y seguros, gestorías, despachos y estudios profesionales y análogas.

Artículo 89. Uso Sanitario.

Es el correspondiente al tratamiento o alojamiento de enfermos (sanatorios, hospitales, clínicas, ambulatorios, dispensarios, consultorios y similares). También se incluyen en el uso sanitario las clínicas veterinarias y establecimientos equiparables.

Artículo 90. Uso Cultural.

Comprende el educativo, el de la enseñanza en todos sus grados y modalidades (incluidas las guarderías infantiles), los museos, bibliotecas, salas de exposición, de conferencias, conservatorios de música, centros de estudios, de fomento y de propagación del saber.

91. artikulua. Erljio arloko erabilera.

Elizak, kaperak, komentuak, parroki zentroak eta antzekoak biltzen ditu.

92. artikulua. Aisialdia.

Aisia eta astialdiko komunitatearen adierazpen desberdinak biltzen dituena da. Batzuk aipatzearen, antzokiak, zineak, dantzalekuak, gastronomi eta aisi elkarteak.

93. artikulua. Kirol erabilera.

Erabilera honetan sartzen dira kultura fisikoa eta kirolak praktikatzeko eta irakasteko egokitutako lokal, eraikin eta inguruetan garatzen direnak.

94. artikulua. Administrazio eta jendearen zerbitzuko erabilera.

Honakoak hartzen ditu:

a) Udaletxean, udal zerbitzuen, Estatuaren, Lurraldearen eta beste herri administrazio batzuen bulegoetan, epaitegietan, postetxe, telegrafo eta telefono etxeetan, eta gizartearen zein herriaren intereseko beste bulego batzuetan garatzen diren jarduerak.

b) Herritarren defentsa eta babes zibila.

c) Hilerrak, hondakinak biltzea eta desagertaraztea, tren eta autobus geltokiak eta gizartearen intereseko bestelakoak.

95. artikulua. Aparkamendua.

Bideen eta berauei atxikitako zona librean artean kokatutako aparkalekua, edo lurzatiei barruan edo lurpean edo eraikin jakin batzuen beheko oinean kokatua, ibilgailuak gordetzeko xedez.

Aparkamendutzat hartuko da, halaber, ibilgailuak gordetzeko xede bakarraz altxatutako eraikin oro.

96. artikulua. Industria.

— Esparrua:

Erabilera honetan honako hauek sartzen dira:

1. Materiak lortzeko, eraldatzeko eta garraiatzeko industriak.

2. Produktuak zaindu, gorde eta banatzeko biltegiak, produktu horiek handizka eta txikizkako saltzaileei, instalatzaileei, fabrikatzaileei edota banatzaileei zuzenduak direnean; hau da, jendeari zuzenean saltzen ez zaionean.

3. Konponketa tailerrak.

4. Gasolindegia eta ibilgailuak garbitzeko instalazioak, eta garajeak.

5. Oro har, erabili, eraldatu edo saldatutako gaiak, edo erabilitako baliabide teknikoak direla eta, pertsonen eragozpenak eragin eta arriskuan jarri edo ondasunetan kalteren bat sor ditzaketen jarduerak guztiak.

Artikulu honetan definitutako industri erabileretik bestelakoak dira erauzketa erabilerak (meategi edo harrobien ustiapena), nekazaritza, abelazkuntza edo basogintza erabilerak legez, eta arlo horiei buruzko legeria espezifikoak xedatutako arautuko dira eta, hala egokituz gero, Arau hauetan xedatutakoaz.

— Sailkapena:

Industria erabilerak kategoriatan desberdinetan sailkatuko dira, ingurumenaren izan dezaketen eraginaren arabera, hau da, ingurumenaren edota baimendutako beste hainbat erabilerarekiko sor ditzaketen eragozpen, kalte eta arriskuen arabera, alegia.

Artículo 91. Uso Religioso.

Comprende las iglesias, capillas, conventos, centros parroquiales y análogos.

Artículo 92. Uso Recreativo.

Es el referente a las manifestaciones comunitarias del ocio y del tiempo libre. A título enunciativo, comprende los teatros, cines, salas de fiestas, sociedades recreativas y gastronómicas.

Artículo 93. Uso Deportivo.

Se incluyen en este uso el que se desarrolla en los locales, edificios y recintos condicionados para la práctica y enseñanza de los ejercicios de cultura física y deportes.

Artículo 94. Uso Administrativo y de Servicio Público.

Comprende:

a) Las actividades que se desarrollan en el Ayuntamiento, otras dependencias de servicios municipales, del Estado, de la Provincia y demás administraciones públicas, juzgados, centros de correos, telégrafos, teléfonos y demás de interés público y social.

b) Defensa ciudadana y protección civil.

c) Cementerios, recogida y eliminación de residuos, estaciones de ferrocarril y autobuses y demás de interés público y social.

Artículo 95. Uso de Aparcamiento.

Aparcamiento en el espacio situado en los viales y zonas libres adscritas a los mismos, o en el interior de parcelas o en el subsuelo o en la planta baja de algunos edificios, destinado a la guarda de vehículos automóviles.

También tendrá el concepto de aparcamiento el edificio que se construya con la finalidad exclusiva de guarda de vehículos.

Artículo 96. Uso Industrial.

— Ambito:

Se comprenden en este uso los siguientes:

1. Las industrias de obtención, transformación y transporte.

2. Los almacenes destinados a la conservación, guarda y distribución de productos, con exclusivo suministro a detallistas, mayoristas, instaladores, fabricantes o distribuidores o sin servicio de venta directa.

3. Los talleres de reparación.

4. Las estaciones de servicio y lavado de vehículos y garajes.

5. Las actividades que por los materiales utilizados, manipulados o despachados, o los elementos técnicos empleados, puedan ocasionar molestias, peligros o incomodidades a las personas, o daños a los bienes.

Distintos de los usos industriales definidos en este artículo son los usos extractivos (de explotación de minas o canteras), agrícolas, pecuarios, forestales, que se regularán por lo dispuesto en la legislación específica en la materia, y, en su caso, por lo dispuesto en estas Normas.

— Clasificación:

Los usos industriales se clasifican en categorías, atendiendo a las incomodidades, nocividad, insalubridad o peligrosidad que puedan originar respecto al ejercicio de otros usos autorizados o respecto al medio ambiente en general:

— 1. kategoria.

Inolako kalterik ez duten industri jarduerak hartzen ditu, norbanakoak edo izaera familiarrekoak, besteentzako gogaikarriak edo arriskutsuak ez direnak eta, hortaz, Jarduera GOKA gisa kalifikatu gabeak eta Salbuetsitakoak ere ez direnak. Hori horrela, jardueran gehienez ere 3 kw-ko potentzia duten makinak edo motoreak erabiliko dira, guztira instalatzen den potentziak 6kw gaudituko ez duen moduan. Jardueran erabilitako azalera, kasu guztietan, 125 m² baino txikiagoa izango da. Egoitza erabilerei, hirugarren sektorekoei eta komunitatearen ekipamenduko erabilerei asimilatutzat hartuko dira eta nagusiki erabilera horietara bideratutako lurzati eta lokaletan ezarri ahal izango dira.

— 2. kategoria.

Egoitza erabilerekin, hirugarren sektorekoekin edota komunitatearen ekipamenduko erabilerekin bateragarri diren industri jarduerak biltzen ditu, arriskugarritasunik ez dutelako, aldameneko erabileretarako gogaikarritasun edo deserosotasunik sortzen ez dutelako —usainak, gasak, hautsa, zarata, bibrazioak, eta abar sortzea—, edo neurri zuzentzaileak hartzen dituelako —gehienez ere 5 kw-ko potentzia unitarioko makina edo motoreak erabili, instalatutako potentzia dentsitatea 25 kw-koa edo txikiagoa izan edota erabilitako azalera 250 m² baino txikiagoa delako.

Zehazki, kategoria honetan sartuko dira automobilen konponketarako tailer txikiak ere, baldin eta 100 m² baino gutxiagoa lokalean berehalako laguntza teknikoa ematen badute eta gehienez ere bi langile badaude. Txapa eta pintura konponketarako tailerak ez dira inolaz ere kategoria horretan sartuko, ez eta ibilgailu astunei zuzendutakoak ere.

Bigarren kategoriako industri erabilerak merkataritza erabilerei asimilatutzat hartuko dira; beraz, nagusiki erabilera horietara bideratutako lurzati eta lokaletan ezarri ahal izango dira. Oro har, industri erabileratzat definituta dauden eta orokorrean egoitza erabilerako hiri eremu gisa kalifikatuta dauden eremuetan kokatutako jarduera guztiak goizeko 8:00etatik gaueko 22:00ak arte garatu ahal izango dira gehienez.

— 3. kategoria.

Tamaina txiki edo ertaineko industri erabilerak biltzen ditu —3.600 m²-tik (lo) beherako lurzati azalera okupagarria eta 5.000 m²-tik (s) beherako solairu estalgarri eraikia— galdatutako betekizunetakoren bat ez betetzeagatik lehen eta bigarren kategoriakotzat ezin har daitezkeenak; edo, oro har, neurri zuzentzaileak hartu arren, eraikuntza berean edo aldamenean kokaturik dauden etxebizitzetara edota hirugarren sektoreko erabilerarako lokalei edo ekipamendu komunitariokoei gogaikarritasunak sor diezaioketenak.

Zehazki, kategoria honetan sartuko dira automobil eta makinaren konponketarako tailerak, baldin eta guztira 100 m² baino gehiagoko azalera erabiltzen badute eta jarduera zuzenean bi langile baino gehiagok badihardute, hornitegiak, erregeiak hornitzeko unitateak, aire zabaleko biltegi eta deposituak, eta eraikin finko eta egonkorretan kokatutako landare zein lore mintegiak, kokaturik daudeneko lursailaren izaerarekin zerikusirik ez badute.

Hirugarren kategoriako industri erabilerak, oro har, batez ere industri erabilerara bideratutako zonetan bakar-bakarrik ezarriko dira.

— 4. kategoria.

Tamaina ertain edo handiko industri erabilerak biltzen ditu —lurzati 3.600 m²-tik (lo) gorako azalera okupatzen dutenak edo 5.000 m²-tik (s) gorako solairu estalgarri eraikia dutenak—; eta, edonolako tamaina dutelarik ere, neurri zuzentzaileak hartu

— Categoría 1.^a

Comprende las actividades industriales totalmente inocuas, carentes por completo de molestias o peligrosidad y, por tanto, no calificadas como Actividades M.I.N.P. ni como Exentas, de carácter individual o familiar, que, en su caso, utilicen máquinas o motores de potencia no superior a 3 kw. cada uno, con una potencia total instalada de los mismos inferior a 6 kw. La superficie utilizada en el ejercicio de la actividad, será, en todos los casos, inferior a 125 m²(u). Se considerarán asimilados a los usos residenciales, terciarios y de equipamiento comunitario, pudiendo implantarse en los locales y parcelas destinados de forma predominante a estos usos.

— Categoría 2.^a

Comprende las actividades industriales compatibles con los usos residenciales, terciarios o de equipamiento comunitario, por carecer de peligrosidad, no generar molestias para los usos colindantes —producción de olores, gases, polvo, ruido, vibraciones, etc.— no producir molestias —o por incorporar medidas correctoras—, utilizar máquinas o motores de potencia inferior a 5 kw. cada uno, disponer de una potencia instalada inferior a 25 kw, y utilizar una superficie inferior a 250 m²(u).

En concreto, se considerarán incluidos en esta categoría los pequeños talleres de reparación de automóviles que presten servicios de asistencia técnica rápida con menos de 100 m²(t) utilizados y menos de dos operarios ocupados. En ningún caso se considerarán incluidos en esta categoría los talleres destinados a la reparación de chapa y pintura, y vehículos pesados.

Los usos industriales de 2.^a categoría se considerarán asimilados a los usos comerciales, pudiendo implantarse en las parcelas y locales destinados de forma predominante a ellos. En general, cualquier tipo de actividad definida para los usos industriales y ubicada en las zonas urbanas calificadas globalmente como residenciales, deberá necesariamente ser desarrollada en la franja horaria máxima definida desde las 8,00 hasta las 22,00 horas.

— Categoría 3.^a

Comprende las actividades industriales de tamaño pequeño o medio —superficie de parcela ocupada por la edificación inferior a 3.600 m²(pe) y superficie de techo edificada inferior a 5.000 m²(t)— que no puedan ser consideradas de categoría 1.^a y 2.^a por incumplir alguno de los requisitos exigidos, o que, en general, y aun con la adopción de medidas correctoras, puedan ocasionar molestias a las viviendas o a los locales de usos terciarios o de equipamiento comunitario si se sitúan en una misma edificación o continuas a ellos.

En concreto, se incluirán en esta categoría los talleres de reparación de vehículos y maquinaria con más de 100 m²(t) de superficie utilizada o más de dos personas ocupadas directamente en la actividad, las estaciones de servicio y las unidades de suministro de combustible, los almacenes y depósitos al aire libre y los viveros de plantas y flores en construcciones fijas y estables que no guarden relación con la naturaleza del terreno en el que se implanten.

Los usos industriales de categoría 3.^a deberán implantarse, con carácter general, exclusivamente en zonas de uso global destinadas de forma predominante a este fin.

— Categoría 4.^a

Comprende las actividades industriales de tamaño medio y grande —superficie de parcela ocupada por la edificación superior a 3.600 m²(pe) o de techo edificado superior a 5.000 m² (t)—, y las que, con independencia de su tamaño, resulten incompatibles,

arren, egoitzarako zonekin bateraezinak direnak edota beste industrien ondoan jarri ezin direnak, osasunkaitzak, kaltegarriak edo gogaikarriak direlako. Era berean, kategoria honetan sartuko dira ondoko eremuetan maniobra, karga-deskarga, biltegitratze edo aparkaleku gaitan jarduera lagungarri ugari eragiten dituzten produkzio-jarduerak; eta, beraz, leku berean beste erabilerekin batera garatu ezin direnak.

Horrelakoak, bakar-bakarrik industriarako guneean ezarri ahal izango dira. Bereziki horretara bideratutako lurzatiengan soil-soilik gauzatu beharko da jarduera, beharrezko erabilera lagungarriak barne hartuz —aire zabalean biltegitratzea, karga eta deskarga, maniobra, aparkamendua edo antzeko beste batzuk.

Instalazioko jagolearen etxebizitza ere industria mota horien erabilera lagungarritzat har daiteke (industri erabilerako lurzati bakoitzeko etxebizitza bat). Zirkunstantzia hori espreski zehaztu beharko da antolamendu xehekatuan.

— 5. kategoria.

Beharrezko produkzio eremuaren hedapenagatik —20.000 m²-tik gorako lurzati azalera— edo beren izaera arriskutsu, kaltegarri edo gogaikarriagatik, soilik berariazko kokalekuetan, hiriguneetatik behar bezainbat urrunduta, onar daitezkeen industri jarduerak biltzen ditu.

Horrelako jarduerak berariazko industri guneean gauzatu dira. Hala ere, aparteko kasuetan, beren ezarpena 4. kategoriako industriaren baldintza beretan burutuko da, eta kasu orotan beharrezko neurri zuzentzaileak ezarriko dira.

Instalazioko jagolearen etxebizitza ere industria mota horien erabilera lagungarritzat har daiteke (industri erabilerako lurzati bakoitzeko etxebizitza bat). Zirkunstantzia hori espreski zehaztu beharko da antolamendu xehekatuan.

— Industri jarduera bat industri erabileretako kategoria jakin batera atxikitze, instalatutako potentziaren gehieneko mugez gainera, jarraian zerrendatzen diren eraginak orokorki baloratuko dira:

Gogaikarritasunak:

— Zarata eragitea (lokal propioaren kanpoaldean eta auzokide kaltetuarengan).

— Beroa sortzea.

— Bibrazioak sortzea.

— Hautsa sortzea.

— Hondakin urak sortzea.

— Industri hondakinak sortzea.

— Merkantzien karga eta deskarga handiak.

— Aparkaleku premiak.

— Bistako instalazioak eta biltegiak.

— Jende pilaketak

Osasunerako kaltegarriak:

— Gasak eta elementu kutsagarriak jaurtitzea.

— Hondakin ur kutsatzaileak, toxikoak edo osasunkaitzak sortzea.

— Material toxikoak manipulatzeko.

— Erradiazioak sortzea.

en todo caso, con las zonas residenciales o con la colindancia directa con otras industrias, por la nocividad, insalubridad o las molestias producidas, aún con la adopción de medidas correctoras. Asimismo se incluirán aquellas actividades productivas que dan lugar a un volumen importante de actividades auxiliares de maniobra, carga y descarga, almacenamiento, o aparcamiento sobre los espacios colindantes, por lo que no resulta compatible la utilización compartida con otras actividades.

Únicamente podrán implantarse en zonas de uso industrial, sobre parcelas destinadas específicamente a ellas, en cuyo ámbito deberá producirse de manera exclusiva la actividad, incluyendo las actividades auxiliares necesarias —almacenamiento al aire libre, carga y descarga, maniobra, aparcamiento, y otras similares.

Como uso auxiliar de esta tipología de industrias podrá considerarse —esta circunstancia deberá especificarse de manera expresa en el planeamiento pormenorizado— la vivienda del guarda de la instalación —una (1) vivienda por cada parcela de uso industrial—.

— Categoría 5.^a

Comprende las actividades industriales que por la extensión del ámbito de producción necesario —superficie de parcela superior a 20.000 m²— o su carácter peligroso, nocivo o molesto, sólo pueden admitirse en emplazamientos específicos, suficientemente alejados de otras zonas de carácter urbano.

Su implantación se realizará en zonas industriales específicas, si bien, excepcionalmente, y previa autorización expresa por el planeamiento, la implantación podrá realizarse en las condiciones establecidas para las industrias de categoría 4.^a e irá acompañada en todo caso de las medidas correctoras necesarias.

Como uso auxiliar de esta tipología de industrias podrá considerarse —esta circunstancia deberá especificarse de manera expresa en el planeamiento pormenorizado— la vivienda del guarda de la instalación —una (1) vivienda por cada parcela de uso industrial—.

— Para adscribir una actividad industrial a una categoría de uso industrial determinada, se valorarán con carácter general los efectos enumerados a continuación, además de los límites máximos de potencia instalada:

Molestias:

— Producción de ruido (Exterior de local propio y vecino más afectado).

— Producción de calor.

— Producción de vibraciones.

— Producción de polvo.

— Producción de aguas residuales.

— Producción de residuos industriales.

— Volumen de cargas y descargas de mercancías.

— Necesidades de aparcamiento.

— Instalaciones o almacenamientos visibles.

— Aglomeraciones de personal.

Nocividad e insalubridad:

— Emisión de gases contaminantes, tóxicos o insalubres.

— Producción de aguas residuales de efectos contaminantes, tóxicos o insalubres.

— Manipulación de materias tóxicas.

— Producción de radiaciones.

— Hondakin solido kutsatzaileak, toxikoak edo osasunkaitzak sortzea.

Arriskua:

— Material erregaiak, sukoiak edo lehergarriak manipulatzea.

— Presio arriskutsuan burututako ekoizpen prozesuak eta ontziraketak.

— Erasotzaile kimikoen jario eta isurketak.

Ezarritako potentzia mugak aplikatzeko, bakar-bakarrik industria ekoizpenerako eta kasuan kasuko jarduera gauatzeko zuzen-zuzenean egokitutako potentzia hartuko da aintzat; eta hori neurtzeko, ez dira kontuan hartuko karga-jasogailu, igogailu, aire-egokitzailu eta berogailuek funtzionatzeko behar duten potentzia, ezta lokala egokitzeko, mantentzeko edo ezar daitezkeen elementu egokitzailuak funtzionatzeko behar den potentzia ere.

Sor daitezkeen zaretei dagokien mugak, kasu bakoitzean horretarako eskuduntza duen Administrazioak ezarriko ditu. Horretarako, ordea, zaretei eta bibrazioei buruzko udal ordenantza egin beharko da aurrez.

Industria jardueraren bat kategoria jakin bati atxikitzeko, edozein kasutan, karga eta deskargara edota mota honetako konponketa tailerretan ibilgailuak jasotzera destinatutako espazio estaliak konputatuko dira. Aitzitik, garaje erabilera lagun-garrietara destinatutako lokalen azalera ez da konputatuko.

4.2 KAPITULUA. KONTZEPTUEN TERMINOLOGIA

97. artikulua. Definizioak.

Arau hauek erabiltzen diren guztietan, ondoren zehazten diren kontzeptuek honako esanahia izango dute:

— Beheko oina:

Kaletik edo espazio libre batetik zuzeneko sarbidea dutena da, behegainaren maila sarbidetik 1,60 metroko altueran duena gehienez, edo 0,75 metroz azpitik asko jota.

Neurri batean edo erabat arkupe duna izan daiteke.

— Erdisotoko oina:

Beheko oinaren azpian kokatuta egonik, bere bolumenaren erdia baino gehiago aldameneko sestra ofizialeatik edo ofiziale-tatik gora ateratzen dena da.

— Sotoko oina:

Beheko oin baten, erdisoto baten edo beste soto baten azpian dagoena da.

Bere izaera hori mantenduko du, nahiz eta desnibelen ondorioz bere itxituretakoren bat aldameneko bideko edo espazio libreko sestratik gora atera, erdisotoko oinaren mailara heldu gabe inolaz ere.

— Goiko oina:

Beheko oinaren gainetik kokatutako oin oro.

— Fatxada:

Eraikinaren kanpoaldeko itxituraren paramentua da, bertan argitasun zein aireztapeneko baoak zabal daitezkeelarik.

— Oinarria:

Fatxadaren zati bat da, honek aldameneko kalearekin edo espazio irekiarekin bat egiten duen gunetik lehen oineko behegainaren azpiko alderainokoa alegia.

— Producción de residuos sólidos contaminantes, tóxicos o insalubres.

Peligrosidad:

— Manipulación de materiales combustibles, inflamables o explosivos.

— Utilización de procesos de producción y recipientes a presión peligrosa.

— Existencia de riesgo de derrames y vertidos de agresivos químicos.

Para la aplicación de los límites de potencia establecidos, se tomará en consideración únicamente la potencia destinada de forma directa a la producción industrial y al desarrollo de la actividad correspondiente, excluyéndose la necesaria para accionar montacargas, ascensores, acondicionadores de aire, calefacción, acondicionamiento del local o su mantenimiento, o la correspondiente a los elementos correctores que se instalen.

Los límites de producción de ruidos serán en cada caso fijados por la administración competente, para lo cual deberá formularse la correspondiente Ordenanza municipal de ruidos y vibraciones.

A los efectos de la adscripción de los usos industriales a una determinada categoría se computarán, en todo caso, los espacios cubiertos destinados a carga y descarga, o, a recepción de vehículos en los talleres de reparación de este tipo. No se computará, por el contrario, la superficie de los locales destinados a usos de garaje auxiliares.

CAPITULO 4.2. TERMINOLOGIA DE CONCEPTOS

Artículo 97. Definiciones.

Cuantas veces se empleen en estas Normas los conceptos que seguidamente se detallan, tendrán el significado siguiente:

— Planta Baja:

Es aquella a la que se accede directamente desde una vía pública o espacio libre y cuyo suelo está situado a nivel del acceso un máximo de 1,60 metros por encima del mismo, o 0,75 metros por debajo.

Podrá ser total o parcialmente porticada.

— Planta Semisótano:

Es la que situada debajo de la planta baja, sobresale en más de un cincuenta por ciento de su volumen de la rasante o rasantes oficiales colindantes.

— Planta de Sótano:

Es la situada debajo de la planta baja de un semisótano o de otro sótano.

No perderá su carácter por el hecho de que como consecuencia de los desniveles alguno de sus cierres sobresalga de la rasante del vial o espacio libre colindante sin llegar a constituir una planta de semisótano.

— Planta Alta:

Es toda aquella situada por encima de la planta baja.

— Fachada:

Es el paramento de cierre exterior del edificio en el que se pueden abrir huecos para luz y ventilación.

— Base:

Es la parte de la fachada comprendida entre el contacto de la misma con la vía pública o espacio libre colindante, y la parte inferior del suelo en la planta primera.

— Murrua:

Oinarriaren gainean gora egiten duen fatxadako alderdi uniforme da.

— Gailurreko erlaitza:

Fatxadaren eta estalkiaren arteko trantsizio elementua da, estalkiaren isurialdea hartzen duena eta murruari errematea ematen diona.

— Atal irtenak:

Fatxadatik abiatuta kanporantz jotzen dutenak dira, bertan bizi izateko modukoak edo okupagarriak direla, kasuen arabera, itxiak, erdi itxiak edo irekiak izan baitaitezke.

Atal itxiak dira begiratokiak eta antzekoak, beren alderdi guztietan ezin desmuntatzeko itxiturak dituztenak.

Atal erdi itxiak dira beren alde opakoetakoren bat zeharo itxirik duten hegalkinak, galeriak eta antzekoak esate baterako.

Atal irten irekiak dira terrazak, balkoiak eta antzekoak.

— Elementu irtenkariak:

Finkoak izaki bertan bizi izateko zein okupatzeko modukoak ez izan eta fatxadako lerrotik ateratzen direnak dira.

Horrelakotzat hartzen dira, besteak beste, zokaloak, pilareak, teilatagalak, gargolak eta markesinak.

— Mehelina:

Alboa ixteko murre edo horma, estalkiraino heltzen dena, beste eraikin batek aldamenean izango duenaz estaltzeko aurreikusia.

Honen jarraitasuna etenik egon daiteke patio baten bidez, hau komuna izan ala ez.

— Patioak:

1. Etxadikoa:

Etxadia osatzen duten eraikinei argitasuna eta ikuspegiak ematekoa da.

2. Lurzatikoa:

Eraikin bakar bati, beronen baitan kokatuta baitago, argitasuna eta aireztapena ematekoa da.

3. Aireztatzekoa:

Lurzatikoak dituen baldintza berberak bilduz, bakar-bakarrik eskailerak, bainugelak, trastetegiak eta sukalde, logela edo egongelak ez diren bestelako espazio eta gelak argitzeko edo aireztatzeko erabiltzen dena.

4. Patio komunak:

Aldi berean elkarren aldameneko bi eraikini zerbitzua ematen dieten lurzatiko patioak dira, eraikin bien baitan kokatuta daudelarik.

— Instalazioen elementu teknikoak:

Izendapen honen baitan geratzen dira eraikineko zerbitzu komunak osatzen dituzten alderdiak, hala nola: Tximiniak, aireztapen edo hozte sistemaren hodiak, argizuloak, irrati eta telebistako antenak, eskaileraren elementuak, igogailuen makineria, tximistorratzak, arropa esekitzeko eta lehertzeko euskarriak, eta abar.

— Muro:

Es la parte uniforme de la fachada que se eleva sobre la base.

— Cornisa de coronamiento:

Es el elemento de transición entre la fachada y la cubierta, que recibe el faldón de ésta y remata el muro.

— Cuerpos salientes:

Son los que partiendo de las fachadas sobresalen de las mismas y tienen el carácter de habitables u ocupables, según los casos, ya sean cerrados, semicerrados o abiertos.

Son cuerpos salientes cerrados los miradores y otros similares con cerramientos indismontables en todos sus lados.

Son cuerpos salientes semicerrados los cuerpos volados que tengan cerrado totalmente alguno de sus contornos laterales opacos, como son las galerías y similares.

Son cuerpos volados abiertos las terrazas, los balcones y otros análogos.

— Elementos salientes:

Son aquellos, de carácter fijo, no habitables ni ocupables, que sobresalen de la línea de fachada.

Tienen esa condición, entre otros, los zócalos, pilares, aleros, gárgolas y marquesinas.

— Medianera:

Muro o pared de cerramiento lateral, ciego, que se lleva hasta la cubierta, previsto para ser tapado por el equivalente de otra edificación.

La continuidad del mismo puede estar interrumpida por un patio, mancomunado o no.

— Patios:

1. De manzana:

Es el que se destina a dar luces y vistas al conjunto de edificios que forman la manzana.

2. De parcela:

Es el destinado a obtener iluminación y ventilación para un sólo edificio y situado dentro del mismo.

3. De ventilación:

Es el que, reuniendo los mismos requisitos que el patio de parcela, sólo es utilizable para iluminar o ventilar escaleras, baños, trasteros, y otros espacios y dependencias no destinados a cocinas, dormitorios o estancias.

4. Mancomunados:

Son aquellos patios de parcela que sirven simultáneamente a dos edificios colindantes y que están situados dentro de ambos.

— Elementos técnicos de las instalaciones:

Bajo esta denominación quedan comprendidas aquellas partes integrantes de servicios comunes del edificio tales como: Chimeneas, conductos del sistema de ventilación, de refrigeración, claraboyas, antenas de radio y televisión, elementos del cuerpo de escalera, maquinaria de ascensores, pararrayos, soportes para el tendido y secado de ropa y otros.

— Lerrokadura:

Bide edo beste espazio ireki batzuetan zehar, eraikinaren mugak edo beste erabilera batzuen antolaketa ezartzen duen lerroa da.

Lerrokadura ofizialak Hiri Antolaketako Arauetan zehaztutakoak, edota kasu bakoitzean Planek eta Xehetasunezko Azterketek adierazitakoak dira.

— Sestra:

Lursail edo bide baten plano horizontalarekiko aldapa zehazten duen lerroa da.

Antolamenduko zehaztapenik izan ezean, egitatezko sestrak hartuko dira sestra ofizialtzat.

— Fatxadako planoak:

Plano bertikala da, fatxadaren zuzentzailearekiko paraleloan eta honen punturik irtenenean tangente trazatua, bere baitan biltzen dituelarik eraikineko altxaerako eraikuntza elementu guztiak.

Fatxadako planoak bakar-bakarrik eraikinak sestra gainean duen alderdiari dagokio, eta ez ditu atal eta elementu irtenak hartzen.

— Eraikuntza lerroa:

Fatxadako planoaren eta lursaileko sestraren arteko elkar-gunea da.

— Eraikuntzaren hondoera:

Bi fatxadetako lerroen artean, nagusi edo lerrokadura ofizialarekiko muga denaren eta atzeko aldekoaren artean alegia, perpendikularrean neurtutako tartea da. Normalean, paraleloak izaten dira fatxada hauek.

— Atzeraemangunea:

Eraikuntza lerroak lerrokadura ofizialekiko edota lurzatiaren mugetako edozeinekiko mantendu behar duen tartea da.

— Okupazio indizea:

Azalera eraikigarriaren eta lurzati baten azalera osoaren arteko gehienezko erlazioa da, ehunekotan adierazia bera.

— Eraikigarritasun indizea:

Oin eraikigarriaren azalera edo bolumenaren batuketaren eta antolaturiko eremuaren azalaren arteko erlazioaren balioa da, m^2/m^2 -tan edo m^3/m^3 -tan adierazia.

— Etxebizitza edo lokal bakoitzeko azalera erabilgarria:

Murru, trenkada eta elementu komunetatik bereizteko bestelako itxitura eta bereizgarrien mugen baitan etxebizitza edo lokal edo aldameneko espazio orok duen azalera da.

Atal irten irekiak, hala nola terrazak eta balkoiak, ez dira konputatzen azalera erabilgarri gisa.

— Etxebizitza edo lokal bakoitzeko azalera eraikia:

Azalera erabilgarriari atal irten irekien eta murru, trenkada eta bestelako itxitura eta bereizgarrien azalera gehitzeaz ateratzen den emaitza da.

— Aparkamendua:

Ibilgailuak gordetzeko maila batean, espazio ireki batean, eraikin baten baitan edo finka itxi batean dagoen espazioa da.

— Alineación:

Es la línea que, a lo largo de los viales o de otros espacios libres, establece frontera o límites a la edificación, o a la ordenación de otros usos.

Son alineaciones oficiales las determinadas por las Normas Subsidiarias o por los Planes y Estudios de Detalle si no señalan otras.

— Rasante:

Es la línea que determina la inclinación, respecto del plano horizontal, de un terreno o vía.

A falta de determinaciones de planeamiento, las rasantes de hecho se considerarán rasantes oficiales.

— Plano de fachada:

Es el plano vertical, trazado paralelamente a la directriz de la fachada y tangente a la misma en su punto más saliente, que contiene en su interior todos los elementos constructivos del alzado del edificio.

El plano de fachada corresponde sólo a la parte del edificio sito sobre rasante, y no comprende los cuerpos y elementos salientes.

— Línea de edificación:

Es la intersección del plano de fachada con la rasante del terreno.

— Fondo de edificación:

Es la distancia, medida perpendicularmente, entre las líneas de dos fachadas, la principal o frontera a la alineación oficial y la posterior, normalmente paralelas entre sí.

— Retranqueo:

Es la distancia a que debe situarse la línea de edificación respecto a la alineación oficial o a uno cualquiera de los linderos de la parcela.

— Índice de ocupación:

Es la relación máxima, expresada en un porcentaje, entre la superficie edificable y la superficie total de una parcela.

— Índice de edificabilidad:

Es el valor, expresado en m^2/m^2 o en m^3/m^2 , de la relación entre la suma de las superficies o de los volúmenes de las plantas edificables y la superficie del área ordenada.

— Superficie útil de cada vivienda o local:

Es la comprendida en el interior de los límites fijadas por los muros, tabiques y demás cerramientos y separaciones respecto de los elementos comunes, de toda otra vivienda o local o de espacios colindantes.

No computan superficie útil los cuerpos salientes abiertos, tales como terrazas y balcones.

— Superficie construida de cada vivienda o local:

Es el resultado de añadir a la superficie útil, la de los cuerpos salientes, abiertos y la de los muros, tabiques y demás elementos de cierre y separación.

— Aparcamiento:

Es el espacio sito en un nivel, en un espacio libre, en el interior de un edificio o de una finca cerrada, destinada a la guarda de vehículos automóviles.

4.3 KAPITULUA. EGOITZA ERABILERA KO LURZATIEN ERAIKUNTZA ETA ERABILERA BALDINTZAK

4.3.1 ATALA. Arau Orokorrak. Mugaketa Funtzionala

98. artikulua. Erabilerak.

Egoitzarako lurzatiak dira erabilera nagusia etxebizitzena dutenak, erabilera aurreikusia edo egun dagoena delarik. Halaber, osagarri gisa eta zehaztuz joango diren mugez, 84. artikuluan aipatutako bestelako erabilerak ere onartzen dituzte, 3., 4. eta 5. kategorietako industriak izan ezik.

Egoitza erabilerako lurzati pribatuaren barruan honako egoera hauek bereizten dira:

— Altueran eraiki daitekeen lurzatia. Lurzati eraikigarrian lerrokadurek mugaturiko zatia, beheko oina eta kasu bakoitzean zehazten diren goiko oinak eraiki daitezkeena.

— Behean eraiki daitekeen lurzatia Gehienez ere 4 metroko altuera hartuz eraiki daitekeen lurzati pribatuaren zatia da, oin bat hartuz alegia.

— Lurpean eraiki daitekeen lurzatia. Kale edo espazio publikoetako sestra azpitik kokatutako lokaletan probetxamendua gauza daitekeen lurzati pribatuaren zatia da, eta erabilera publikoko zorpen bat izan dezake zenbait kasutan.

— Lurzati pribatu eraikiezina (lorategi pribatua): Eraikin baten lerrokaduretatik kanpo dagoela, sestra gainean eraikitze-rik ez dagoen lurzati pribatuaren zatia da, eta lorategi edo berdegune pribatu gisa mantendu behar da, eraikitzeko toleranziaz, eta kasu bakoitzean ezartzen diren erabilerez.

— Atari-aurreak. Behean edo altueran eraiki daitekeen lurzatiaren zatia da, beheko oinean erabilera publikoko zorpen bat duena.

Era berean, kasuan kasuko egoerek hala agintzen dutenean, erabilera publikoko zorpenak ezartzea aurreikus daiteke.

EGOITZA ERABILERA KO ERAIKINEN ERAIKUNTZA ARAU OROKORRAK ETA BALDINTZAK

99. artikulua. Eraikinaren gehienerako hondoera.

1. Fatxada nagusiaren lerroaren eta bestaldeko fatxada lerroaren arteko distantzia da.

2. Lerrokadurak aldatzeko aurreikuspenik egin ezean, gehienerako hondoera aurretik zegoen eraikinarena izango da, 20 metro hartuz gehienez ere.

3. Ordenantza hauek jasota dauden Hiri Antolaketa Arauek hondoera hori finkatu ez duten eraiki gabeko orube bat denean, hondoera hori Udalak berak finkatuko du, Antolaketa Plan batez edo Xehetasunezko Azterketa batez bestela.

100. artikulua. Fatxada nagusiaren gutxienerako zabalera.

1. Aurretik eraiki gabe dauden orubeetan altxatzen diren eraikinetan, edota erabilera nagusia etxebizitzarena ez zuten eraikinak zeuden tokietan, zabalera hori 5 metrokoa izango da.

2. Etxebizitzara emandako eraikin bat eraitsiz lortutako orubean eraikitzen den kasuetan, berariaz kontrakorik adierazten ez bada, botatako higiezinak zuen zabalera bereko fatxada nagusia izan dezake etxe berriak.

CAPITULO 4.3. CONDICIONES DE EDIFICACION Y USO DE LAS PARCELAS DE USO RESIDENCIAL

SECCION 4.3.1. Normas Generales. Delimitación Funcional

Artículo 98. Usos.

Las parcelas residenciales son aquellas cuyo uso predominante, existente o previsto, es el de vivienda. Pero admiten también, con un carácter accesorio y con las limitaciones que se irán detallando, los restantes usos enunciados en el artículo 84, salvo el industrial en sus categorías 3.ª, 4.ª y 5.ª

Dentro de la parcela privada de uso residencial se distinguen las siguientes situaciones:

— Parcela edificable en altura. Es aquella parte de la parcela edificable delimitada por las alineaciones en la que se permite la construcción de planta baja y los pisos superiores que se determinen en cada caso.

— Parcela edificable en bajo. Es aquella parte de la parcela privada susceptible de ser edificada con una altura máxima de 4,00 mts., correspondiente a un piso.

— Parcela edificable en subsuelo. Es aquella parte de la parcela privada susceptible de aprovechamientos en locales situados bajo la rasante de las calles o espacios públicos, y puede estar gravada o no por una servidumbre de uso público.

— Parcela privada no edificable (jardín privado). Es aquella parte de la parcela privada, que situada fuera de las alineaciones del edificio, no es susceptible de ser edificada sobre rasante, debiendo mantenerse como jardín o zona verde privadas con las tolerancias de edificación, y usos que se establezcan en cada caso.

— Porches. Es aquella parte de la parcela edificable en bajo o en altura, que queda gravada por una servidumbre de uso público en planta baja.

Asimismo, y para las situaciones correspondientes se podrá en su caso contemplar las servidumbres de uso público necesarias.

NORMAS GENERALES SOBRE LA CONSTRUCCION Y CONDICIONES DE LOS EDIFICIOS RESIDENCIALES

Artículo 99. Fondo máximo de la edificación.

1. Es el comprendido entre la línea de fachada principal y la línea de la fachada opuesta.

2. Si no estuviese prevista una modificación de alineaciones, el fondo máximo será el del edificio preexistente, con un máximo de 20 metros.

3. Tratándose de un solar no edificado para el cual las Normas Subsidiarias de las que estas Ordenanzas forman parte no fijen ese fondo, éste lo determinará el Ayuntamiento a través de un Plan de Ordenación o de un Estudio de Detalle.

Artículo 100. Anchura mínima de la fachada principal.

1. En los edificios que se construyan sobre solares no edificados con anterioridad o donde hubiesen existido construcciones no destinadas con carácter principal a vivienda, esa anchura de 5 metros.

2. En los supuestos de construcción sobre solar resultante de la demolición de un edificio preexistente destinado a viviendas, la nueva casa podrá tener - salvo disposición en contrario - una anchura de fachada principal equivalente a la del inmueble derruido.

101. artikulua. Eraikinen altuera eta oin kopurua.

1. Hiri Antolaketakoa Arauek edo onartutako edo onartzen diren antolamenduaren tresnek alor, eremu edo lurzati bakoitzeko zehazten dituztenak izango dira.

2. Berariaz kontrakorik adierazten ez bada, eraikin guztiek sotoko oin bat edo gehiago izan ahal izango dute.

102. artikulua. Oin bakoitzaren gutxieneko altuera libre.

1. Sotoak.

2,20 metrokoa izango da.

Egiturako irtenuneek edo sotoetako sabaietan dauden eraikineko instalazioetako elementuek ezingo dute, inolaz ere, altuera libre hori 0,20 metro baino gutxiagoraino murriztu, irtenune horien azpitik igarotzeko tokian.

2. Erdisotoak.

2,20 metrokoa izango da.

Egiturako irtenuneek edo erdisotoetako sabaietan dauden eraikineko instalazioetako elementuek ezingo dute, inolaz ere, altuera libre hori 0,20 metro baino gutxiagoraino murriztu, irtenune horien azpitik igarotzeko tokian.

3. Beheko oina.

2,50 metrokoa izango da.

Komuna edo trastetegi-biltegi emandako gela osagarrien kasuan, neurri txikikoak izaki beste erabilerarik ezin delarik gauzatu bertan, altuera libre 2,20 metrora murriztu ahal izango da.

4. Goiko oinak.

2,50 metrokoa izango da.

Altuera hori 2,30 metrora murriztu ahal izango da halako puntu jakin batzuetan, hala nola komunetan, bainugeletan, biltegi txikietan, artxibategian, armairuen gelan eta pertsonak luzaroan bertan egoteko ez diren gainerako guzietan.

5. Neurtzeko era.

Sotoei eta erdisotoei buruz ezarritakoa baldintzatu gabe, altuera libretzat hartuko da beti oin bateko zoru bukatuaren goialdetik hasi eta oin horretako sabai bukatuaren edota sabai faltuaren behealderainoko distantzia bertikala.

